


JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA, 'TXILLARDEGI'

«Egun errazago ikusten dut euskararen normalizazioa agente politiko bat baino»

74 urte ditu. Euskal Herriari, euskarari eta abertzaletasunari ekarpen itzela egindako pertsona. Makalaldi baten ondoren, ongi dago betidanik kezkatu duten gaiez mintzatzeko. • Testua: Iñaki Petxarroman



Hiru liburu dauka bidean Txillardegik. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

D

eseroso nabari zaio kamera aurrean. «Bi argazki eta kito!», esan dio argazkilariari erdi serio, erdi broman. Hizketan hasi eta berehala, ordea, ahaztu egin zaio kamera bertan dela.

Nola gogoratzen duzu zure gaxtetako Donostia? Nola hasi zinen euskarara eta abertzaletasunera hurbiltzen?

Ni antiguatarra naiz. Nire txikitako hizkuntza erdara izan zen. Baina nabaritzen nuen Antiguatik atera eta berehala, Igeldo, Igara eta horrelako auzoetan, euskaraz egiten zutela guztia. Esnezalea etortzen zen etxera egunero, eta nire ama entzuten nuen harekin euskaraz hizketan. Esnezalearekin euskaraz egiten zuen, baina ez nirekin. Hori txikitatik nabaritu nuen, alegia, bazela beste hizkuntza bat. Esango nuke horrek mugitu ninduela euskal mundura. Kontraesan hori etxean ikusi dut: aita tolosarra zen, eta euskaraz bazekien, baina nirekin ez zuen euskaraz hitz egiten; ama donostiarra zen, eta ondo zekien euskaraz, baina hala ere euskara ez dut jaso etxetik. Kontraesan horren ondorioz piztu ziren nigan hasieran euskaltzaletasuna eta gero abertzaletasuna.

Beraz, lehenengo euskaltzaletasuna, eta gero abertzaletasuna.

Bai. Abertzaletasuna bestearen ondorioa izan zen; alegia, hemen zapalduta gaude, eta hori guztia berehala sumatu genuen, frankismo bete ginelarik. Gogoratzen naiz gerra hasi baino lehenago festa batean, Antiguako plazan, ikurriña atera zutela. Gogoratzen naiz liburu batzuek, nire gurasoen aita- inprentan egindako liburuek, kartelez... Etxean ezkatututa izaten zituzten. Gogoratzen naiz EAJ-ren liburu batez, 1932ko Aberri Egunean egindakoaz, *El Libro de la Patria*. Hori ere etxean zen ezkutatua. Familiako asko ihes eginda zeuden, osaba txiki bat fusilatua Madrilan... Gogoratzen naiz nola sartu ziren faxistak Donostian, eta, egia esan, umetako esperientzia horiek markatu egiten dute.

Frankismo bete, gazte talde batak sortu zuten ETA erakundea. Izena zuk eman zenion.

Hori anekdota bat da. Une hartan, 1956an, euskaltzain urgazlea nintzen. Beraz, Ekinekoen artean, gero ETA sortu zutenen artean, horrek halako autoritatea ematen zidan. Proposatu zidaten izen bat asmatzea. Bi aukera ekarri nituen: Euskadi Ta Askatasuna (ETA) eta Aberri Ta Askatasuna (ATA). Bigarren horretaz bizkai-

tarrek zioten barregarria izango zela, ahatarekin nahas zitekeelako: eta beraz, Euskadi Ta Askatasuna onartu zen.

Euskara etxean ez, baizik eta zure kasa ikasi zenuen gaztetan.

17 urte nirela, gaixotu egin nintzen, eta amaren laguntzarekin egin nuen halako gramatika personal bat, amari galderak egin ez. Galdetzen nion hau eta hura nola esaten zen, eta berak esan bezala apuntatu egiten nuen: *nago* (nago), *dao* (dago)... Ohean egon nintzen bitartean egin nuen gramatika hura, eta sendatu nintzenezan, 18 urterekin, jarri nintzen harremanetan euskal munduarekin, eta, orduan, Zabela Aranaren gramatika liburua eskuratu nuen. Gero, Arriagarai-Ataunen gramatikarekin ere aritu nintzen. Orduan, Iñaki Zume-ta izan zen nire lehen irakaslea.

Gerotik gurasoekin hitz egingo zenuen maiz horretaz. Zer dela eta ez zizuten euskara irakatsi?

Amata eta aita Donostiako burgesia txikiko jendea zen. Egoera diglosikoa zen. Nire amak ez zuen problema esne-saltzailearekin edo baserriarekin euskaraz hitz egiteko, baina guri... Euskara ez zen guri hitz egitekoa. Gainera, faxismo-rik gogorrenaren garaia zen, eta hori bizi izan genuen etxean.

Gazte ezagutu zenuen kartzela, ezta?

Bai, 1950ean, 20 urterekin, Martutene inauguratu bertia zelarik. Kartzelan izan nuen aukera euskara praktikatzeko, kide guztiak euskaldunak baitziren. Erori zen kostaldeko jende pila, eta denek euskaraz egiten zuten. Lehen barneretaria kartzela izan zen niretzat.

Euskara batuaren eztabaida etorri zen gero. Nola oroitzen duzu?

Horretan eragin handia izan zuen niregan Federico Krutwigek. Hark betidanik zioen hizkuntza batua behar zela hemen, eta hark zioen, gainera, euskara hori egina zegoela, Leizarragaren euskara zela. Baina eztabaidetan ateratzen zen beti Leizarraga XVI. mendeko idazlea zela eta itxura arkaiko bateko hizkuntza erabiltzen zuela. Hark uste zuen zerbaite sakratua egin behar zela, testamentua idazteko, euskara sakralizatu batekin. Nik Krutwigi esaten nion ez zela posible hizkuntza horrekin ezer egitea. Guri askoz errealista-koa iruditzen zitzaigun Azkueren plana, gipuzkera osatua deitzen zuena. Gero bizkaitarrak zeuden, bizkaiera hartu behar zela esanez, eta hor EAJk jartzen zuen indarra. Hiru joera horiek zeuden. Euskaltzaindiak ez zuen ezer egiten horri buruz; beste estratosfera batean bizi ziren. Honekin kezkatuta, gu geunden batez ere. Azkenean, kostata, lortu genuen Euskaltzaindiari inplikatzeko, eta 1968ko kongresuan onartu zuten plana. Baina gu askoz ere lehenago hasiak ginen lanean, 1956an, 1964an Baionan eta beste.

Hiltzetik gertu sumatzen zenuen euskara, ezta?

Beharbada gazteak ginelako, nahiz eta ezer esperantzagarri-rik ez ikusi, gogor egin genuen aurrera, ETArekin bezala. Alegia, nahi eta nahi ez egin behar zen, dena aurkakoa iruditu arren. Nik uste dut gaztetasunak bulzatu gintuela batetik, eta beste biderik ez ikusteak besterik. Izan ere, beste biderik ez zen ikusten. Jendeak ez zuen ezer jakin nahi, urdajiduta zegoen. ETA sortu zen, behar bat zegoelako sakonean, baina azalean ez zegoen ezer.

Izugarrizko lana egin duzu urteetan euskararen alde. Baina ez zaituzte sekula egin euskaltzain oso. Geratzen zaizu minen bat?

Ez dut ezer esatekorik horri buruz, hain da kontu nabarmena. Eta orain erabakiko balute euskaltzain oso egitea, onartuko zenuke? Ez.

Izatez eta lanbidez ingeniaria zara. Jardun zara lan horretan?

Bai, bestaldetik hona etorri nintzen arte, 1977ra arte, bizi izan nintzen ingeniari gisa. Hemen utzi nion ingeniari gisa lan egiteari. 16 urte pasatu nituen ingeniari gisa lanean, eta aurretik ere denbora gehiago. Nire soldata hortik eskuratzen nuen. Ez da kasualitate nik soziolinguistikako matematikoa egitea. Ni ez naiz matematikalaria inondik ere, baina bizi guztia pasatu izan dut kalkuluak egiten. Belgikan, adibidez, zentral nuklearretan ikusten diren dorreak kalkulatzeko makina bat denbora egin nuen.

Betidanik izan duzu euskararen etorkizunarekiko kezka bizia. Kalkuluak ateratzen hasita, bizitza luzea ikusten al diozu?

Uste dut baietz. Euskaldunok, oro har, dezente erabiltzen dute euskara euren artean, erdalduen elebakarrek ezinezko bihurtzen ez dutenean. Nik une honetan errazago ikusten dut euskararen normalizazioa aginte politiko bat baino, ikusita Madrilen nola dauden egurra ematen Francoren garaian bezala. Hemen afera politikoa oso zaila dago, Espainian faxismo-ko joera dutelako. Ikusi beharko da zer gertatzen den orain Kataluniarekin eta, baina...

Duela gutxi hauteskundeak izan ziren Hego Euskal Herrian. Bat baino gehiago harrituko zen zure izena Aralarren zerrendetan ikusita.

Bai, badakit. Baina uste dut hemen Europan bizi garela, eta, gustatu ala ez, hor ditugula Bush, Blair, Aznar, Berlusconi, Sharon... Testuinguru guztiz txarra dugu. Estatu hauek borroka armatua, oso gogorra ez bada behintzat, erraz irensten dute. Eta, gainera, argudio bat bihurtzen da beraiantzat. ETAK azkenaldian darabilen borroka aitazkia hutsa bihurtu da estatuarentzat. Ez da beti horrela izan. Carrero Blancoren aurkako ekintzaren garaian, estatuarentzat hil edo biziko afera zen. Orain, aldez, ez. Zergatik erabaki du IRAK bu-tzetzea? Gaur egun estatuek du-

«ETAK arazo gehiago sortzen dituenak konpontzen dituenak baino, eta irtenbidea su-etena da»

«Egoera diglosikoa bizi genuen etxean; amak euskaraz egiten zuen esnezalearekin, baina ez gurekin»

«Ez dut zeresanik Euskaltzaindiari buruz, baina orain ez nuke onartuko euskaltzain oso egitea»

«Ibarretxeren Planak ez du irtenbiderik, ez bada guri botoak kendu eta EAJ gizentzeko»

ten indarra hain da handia, ezen berdin zaion dena. Eta borroka izan behar du edo txetxeniarek egiten duten bezalakoxea atentatu suizidekin eta — eta ez dut uste horretarako girorik dagoenik —, edo bestela, onena geratzea da. Zer dela-eta sartu nintzen Aralarren? Batez ere horregatik. Aralarren ikusi nituen Iñaki Aldekoa, Patxi Zabaleta, eta nire kide diren guztiak ikusten dutela ETAK problema gehiago ekarzen dizkigula konpontzen dituenak baino, eta irtenbidea su-etena dela.

Hala ere, horrek Batasuna kinka zailean jartzen du, ematen baitu Batasunak ETA sostengatzen duela.

Badirudi kontraesanean dagoela azkenaldian Permach, Otegi eta hauek esaten ari direna eta ETAK ateratako azken agiria. ETA dio egurra eta egurra ematen segitu behar dela, baina orain arteko egurra kilimik dira Estatuarentzat. Guri ezinezko egiten digu edozein konponbide. Batasunak zer pentsatzen duen? Ez dakit zer pentsatzen duen. ETA oso inportantea izan da herri honen historian, eta etakideek merezimendu osoa merezi dute. Intelektual ospetsu batek esaten zuen XX. mendean Euskal Herrian gertatutako fenomenorik inportanteena ETA izan dela. Eta ETA gure herriak sortu da, gazteen artean preseski.

Gaur egun, badirudi Batasunaren eta Aralarren arteko harremanak oso kaxkarrak direla. Nola bizi duzu Batasunak leporatzen diotenean Aralarri azken hauteskundetako hautetsiak lapurtzea?

Lehengoañ Iruñean han ziren Batasuneko gazte batzuk, lapurrak zioten pankartarekin. Ez dakit, iruditzen zait oso triste dela horrela ibiltzea gure artean. Ni ez naiz Aralarren sartu traizio bat egiteko. Momentu honetan iruditzen zait akordio politiko bat egin beharko litzatekeela abertzaleen artean, eta, orduan, ETAK nahi eta nahi ez kontuan hartuko du. Niretzat oso adierazgarria da Peixotok esatea ETAK kontuan hartu beharko lukeela su-etenen alde dagoenaldian. Ez dut duda egiten hemen dagoen arazoa politikoa dela, eta akordio politiko baten bidez konpondu behar dela. Hori Batasuna gabe ezin da konpondu.

Nola ater daiteke ataka honetatik? Izan dadila behingoz akordio nazional bat, abertzale guztiok onartzeko modukoa. Eta, hor, ezker abertzaleak sarri behar du nahitaez, ezker abertzale osoak. Mahai gainean dagoen eztabaidagune nagusia Ibarretxeren Plana da. Nola ikusten duzu?

Ibarretxeren Plana ez da nire plana. Nire plana izango litzateke autodeterminazioa, lurralderasuna... Ibarretxeren Plana ez da aterako. Kasurik onenean, Espainiako Kongresuraino heldu da, eta, han, atzera botako dute. PP eta PSOE kontra daude, amorrut. Hor dagoen susmoa da ezker abertzaleak dioena, alegia,

garbi dagoela plan horrek ez duela biderik, eta, beraz, guk egin behar dugula aurrera. Ezagututa EAJk eta EAK duten iragana, gure jendeak ez du sinesten. Aralarren ez dakit, baina Batasunan, behintzat, mesfidantza osoa dago. Plan horrek ez du irtenbiderik, ez bada guri botoak kendu eta EAJ gizen-tzeko, eta horrekin politika autonomista egiten jarraitzeko.

Aralarrek eta Batasunak ez al luke-te bat egin behar?

Bai, dudarik gabe. Ez dugu problema Batasunarekin, baizik eta ETArekin borroka egitearekin. Batasunak ez dira ausartzen esatera ez dela komeni; gu, aldez, bai. Iñaki da alde. Su-etena badago, berehala planteatzen da Batasunak eta Aralarrek bat egin. Niretzat, behintzat, hala da.

Ari al zara zerbaite idazten?

Hiru liburua dauzkat bidean. Bat amaituta dago, Santa Klara uhar-tearen historia bat. Hori Donostia egunaren bezperan kaleratuko da segur aski. Beste liburua bat saiake-ra liburua izango da, eta hirugarrena euskal fonologia bertso-larien bidez, alegia, bertso-larien hizkera nolakoa zen, eta eredu gisa in-teresgarria da. Euskara baruari kutsu herrikoia eman behar zaito. Fonologia eta esaera mailan haize freskora behar du euskara batuak nire ustez.

Azkenaldian euskalgintza Espainiako Estatuaren erasoan jomuga bihurtu da.

Bai, uste dut espainiarrek guk baino hobeto ikusten dutela problema non dagoen. Etsaiak norik berak baino hobeto ikusten ditu gauzak. Espainiak badaki Euskal Herria euskararen herria dela edo bestela ez dela ezer. Hor daude Aragoi, Burgosko iparralde, Errioxa... Horiek garai batean euskal herriak ziren. Gaur egun ja-da ez. Horregatik ari dira jo eta ke euskalgintzen kontra. Izan ere, gure nortasunari eusten ez badiogu, zertan ari gara? Euskal pasaporte bat izateko borrokan?

Beno, hor dago Irlandaren adibi-dea. Hizkuntza ez, baina estatua dute.

Niretzat, irlandarreganako errespetu guztiarekin, Irlanda ez da eredu. Niretzat porrot baten historia da Irlandarena.

Unibertsitatean jarraitzen duzu?

Bai, irakasle emeritua naiz. Ez dugu eskolarik ematen ez lehen eta ez bigarren zikloan. Hirugarren zikloan ematen dugu. Nik une honetan doktorego ikastaroak ematen ditut. Joan den urtean gaixo egin naiz, eta ez naiz aritu unibertsitatean ia, baina aritzen asmaoa dut eskolak emateko. Hizkuntza eskubidei buruzko ikastaro emango dut.

Osasunez ondo zaude?

Bai, bai, ondo nago. Nabari da nire jarrerari bertan: prestago nago lan egiteko momentu honetan. Duela bi urtekin zorabiatu egiten nintzen, eta ez nintzen ondo sentitzen. Oreak galtze hori oso gogorra da.

MOTZEAN

Liburu bat.

Asko aipatuko nituzke.

Herri bat.

Euskal Herria.

Ilusio bat.

Euskal Herria beste fase batean sartzea.

Damuren bat.

Gauza batzuk garaiz ez esaten ausartu izana.

Politikari bat.

Teleforo Monzon.

Euskara.

Gure herriaren izana, fun-tsa.

ETA.

Inperialismoari aurre egi-ten eta mistika abertzalea pizten izugarri lagundu duen mugimendua.

Aralar.

Ezker abertzalea aldatu be-harraren sintoma.

Batasuna.

Ezker abertzale zibilaren jatorria.